

## **A. AURKEZPENA**

### **1. XEDAPEN AURREKARIAK ETA JUSTIFIKAZIOA**

Errenteriako Udalak, Ingurumen Sailaren koordinaziopean eta Trafiko eta Hirigintza Sailekin batera Oinezko eta Bizikleta Bidezko Mugikortasun Plan bat landu du (aurrerantzean OBMP), bizikletaren garraio gisako erabilera bultzatzeko, eta oinezko desplazamenduak erosoagoak eta erakargarriagoak egiteko asmoz, horrela Tokiko 21 Agendaren garapenean pausu berriak emanez. Ingurumenaren eta sostengarritasunaren ikuspuntutik mugikortasun sistemak Errenteriako bizikaltatearen hobekuntzan lagundu behar du, aldi berean energia kontsumoaren eta isuri kutsatzaileen jaitsiera lortzea suposatzen duena (bereziki klima-aldaketaren iturri diren negutegi efektuko gasena).

#### **Autoaren gehiegizko erabilera eta erlazionatutako arazoak**

2014ean egindako udalerrri mailako azterketa/inkesta baten arabera, errenteriarren %10k autoa erabiltzen du herri barruko garraio bide nagusi gisa egunerokotasunean. Honek esan nahi du egunero auto bidezko milaka barne desplazamendu egiten direla. Errealitate honen ondorio negatiboak horrela laburbildu daitezke: garraio publikoaren funtzionamenduari trabak, autoen espazio publikoaren okupazioa, kaleko beste erabiltzaileen segurtasun, erosotasun eta osasun galerak (bereziki oinezko eta txirrindulariarena). Arazo hauei kale askoren bizigarritasun eta erakargarritasun komertzialaren galera gehitu behar zaie. Herritarrek beraien mugikortasun eredua eta hiri barneko trafikoa nolakoak izatea nahi duten pentsatu behar dute.

#### **Oinezko joan-etorrien garrantzia**

Ibiltzea ingurumen inpaktu txikien eta onura sozial handiena duen garraio-modua izateaz gain, errenteriarren artean nagusitzen dena da (aipatutako azterketaren arabera barne desplazamenduen %80a oinez egiten da). Aurrerapen fasean dagoen egitasmoan, oinezkoen kontsiderazio berria bilatzen da garraio sistemaren barruan, berriak liratekeen kontzeptuak azpimarratuz: segurtasuna, erosotasuna, azkartasuna eta erakargarritasuna.

#### **Bizikleta eguneroko garraio bide gisa Errenterian, oraindik gauzatzeke dagoen erronka**

Bizikleta Errenterian eta baita eskualde mailan ere paper garrantzitsua joko dezakeen garraio alternatibo bat da, batik bat oinez egiteko luzeegiak izan daitezkeen distantziak egiteko. Bizikletaren erabilerak kolektiboki dakartzkien ingurumen, giza eta ekonomia onurez gain (auto pilaketan gutxitzea, espazioaren aurrezte, eta zarata eta kutsaduraren jaitsiera), norbanakoarentzat dituen abantailak azpimarratu daitezke, izan ere, bizikleta merkea, azkarra eta osasuntsua baita.

Erreterian dagoeneko badago bizikletaren erabilera sustatzeko gizarte-eskaria. (Ikus 4.1 atala “Mugikortasunaren inguruko inkesta publikoa: aldaketa nahia”) Bere erabilera hazi egin da azken urteotan, gaur egun barne-bidaieen %1era iritsi arte (bai lanera, ikasketetara joateko edota erosketak eta gestioak egiteko bidaiez ari gara kasu honetan).

Hala ere, bide luzea dago egiteke, izan ere erreteriarren %5ari barne bidaietan bizikleta bere garraibide nagusia izatea gustatuko bailitzaioke. Aipatu beharreko datu nagusia, herritarren %76-k udaletxeak bizikletaren erabilpena sustatzeko neurriak hartzeko ados edo guztiz ados azaldu direla da.

Erreteriak oinezko bide-sare zabala eta nahiko ondo lotua du gaur egun, baina hobe daitekeena. Bestalde, paseorako tartez eta hirigunearen kanpoaldeko guneean kokatutako tartez osatutako 11 kilometro bidegorri ditu, beraien arteko loturarik gabekoak. Gainera ibilbide hauetako asko gune berdinetan errepikatuak aurkitzen dira. Honela, ez dago hirigunean bizikletentzako azpiegitura egoki edo berariazkorik.

Hau guztia kontuan hartuta, planak oinezkoen lehentasunezko bide-sare, seguru, eroso eta erakargarria proposatzen du, horretarako auzo eta ekipamenduen arteko lotura egingo duen 9 km-ko bizikleta bide-sare osagarria eraikiz. Bizikleta bide-sare hau eguneroko jarduera edo aisialdi jarduera erabilpenak egiteko diseinatua egongo da. Gainera Planak bizikletaren erabilperaren sutapenerako neurriak ere proposatzen ditu.

### **Mugikortasun ez motorizatuaren plangintzaren xedapen aurrekariak**

Mugikortasun ez motorizatuaren plangintzari dagokionez, bada 2007-an Oinezko Mugikortasunaren Analiaren Aurrerapen dokumentu bat. Bertan oinezko joan-etorrien oztupoak aztertu eta oinezkoentzako ibilbideak proposatzen dira.

Bada ere, bizikletaren erabilpena sustatzeko estrategia bat eta bizikleta bide-sare bat proposatzen duen 2008garren urteko Bizikletazko Zuzendaritza Plan bat. Bertan aurreikusitako bizikleta bide-sarea berrikusia izan da segurtasun eta ezarpen-kostu irizpideak kontuan hartuta. Bide-publikoei dagokionez, Irisgarritasun Planak arkitektura oztupoak ezabatzeko eta Irisgarritasun Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko neurriak proposatzen ditu. Garraio publiko bertikalari dagokionez, gune ezberdinen arteko maldak libratzeko igogailu publikoak ezarri dira azken urteotan. Udal garraio publiko bertikaleko sareak garrantzi handia du honako planaren proposamenen inguruan.

OBMP honen bidez, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasunerako hobekuntzen sakontzean oinarritutako neurriak proposatzen dira, gaur egungo eskariari aurre egiteko. Honela, bi mugikortasun jasangarri mota hauen arteko laguntza funtsezkoa da Plan honetan. Oinezkoentzako proposatutako edozein hobekuntzak bizikleta erabiltzaileentzako ere onuragarria izan behar du, eta alderantziz, bien arteko elkartasuna sortuz.

Honako Planarekin Sinergia ugari sor ditzaken aukera bat Gipuzkoako Bizikleta Estrategiaren idaztea izan daiteke. Bertan, lurralde historikoan bizikletaren erabilera integrala bultzatzeko 8 urterako neurriak aurreikusten dira. (2014-2022)

Osasun arloari dagokionez, OBMP-, Udalsarea 21-ren “Osasuna eta hiri-garapen jasangarria.” txostenean aurreikusitako helburuekin bat datorrela esan behar da. Txostenak osasun arloan garatutako estrategien artean “mugikortasun aktiborako modu ezberdinen sustapena” aipatzen da. (Oinez ala bizikletaz)

Gida honek proposatutako metodologiaren erabilpena interesgarria izan daiteke OBMP-ren zenbait neurrien eragina osasun arloan aztertzeko orduan.

Bestalde, Errenteriako Udala Jasangarritasun eta Ingurumen arloko 5 ataletan plangintza estrategiko eta araudi idazpen fase garrantzitsu batean dago gaur egun. Tokiko Agenda 21, biodibertsitatea, energia, hondakinak eta mugikortasun jasangarria, eta gainera Errenteria 2025 Plan Estrategikoa. OBMP-a plangintza guzti hau osatzera dator.

## 2. PLANAREN HELBURUAK ETA INGURUMEN ERRONKAK

Sostengarritasunaren ikuspuntutik, mugikortasun sistemak Errenteriako bizikaltatearen hobekuntzan lagundu behar du. Honek, aldi berean, energia kontsumoaren eta isuri kutsatzaileen jaitiera lortzea suposatzen du (bereziki klima-aldaketaren iturri diren negutegi efektuko gasena). Planaren garapena, Euskal Autonomi Erkidegoko Garapen Jasangarrirako Estrategia EcoEuskadi 2020 eta bereziki Euskal Autonomi Erkidegoko Mugikortasun Jasangarrirako Zuzendaritza Plana 2020-rekin bat dator, baita CO2 isuriak 2020 urterako %20-ean murrizteko Europar Batasunaren Estrategiarekin ere. Azken helburu hau lortzeko, ibilgailu pribatuaren erabilera gutxitzea eta beste mugikortasun modu alternatiboak bultzatzea ezinbestekoa da. (Oinez edo bizikletaz ibili, garraio publikoa erabili).

## ERRENTERIAKO OINEZKO ETA BIZIKLETA BIDEZKO MUGIKORTASUN PLANA

Lehiakortasunari dagokionez, Errenteriako mugikortasunaren funtzionaltasuna hobetzea da helburua, modu honetan garapen sozio-ekonomikoa bultzatuz. Garraio modu ez motorizatuen sustapenak, garraio publikoen funtzionamenduaren hobekuntzarekin batera, auto-pilaketen gutxitzea ekarriko du, baita joan-etorrien iraupena eta energia kontsumoaren gutxitzea ere, modu honetan joan-etorrien kostuak murriztuz.

Mugikortasun jasangarriaren helburua lortzeko beste ezinbesteko baldintza bat segurtasuna da. Ez da bakarrik istripu kopurua murriztu behar, herritarren arriskuaren pertzepzio-maila espazio publikoan ere murriztu behar da. Hau guzti beste erronka nagusi bat ahaztu gabe: mugikortasun eredu jasangarri bat lortzea, azpiegitura edo inbertsio handien aurreikuspena aldatu edo atzeratzera bultzatzen duen krisialdi ekonomikoko testuinguru batean.

Gogoeta guzti hauek hiru erronka nagusitan isla daitezke:

- Oinezko joan-etorrien erakargarritasuna areagotu, erosotasuna eta segurtasuna bermatuko dituen bide-egitura baten bidez.
- Bizikletaren erabilpena sustatu eta indartu eguneroko garraio modu gisa, distantzia mailan horretarako udalerrri egokia dela kontuan hartuta.
- Espazio publikoa egoteko eta gizarte-harremanerako eremutzat hartu, eta ez oinezkoen zirkulaziorako eremutzat bakarrik.

Helburu orokorrak honela laburbildu daitezke:

- Oinezkoen eta txirrindularien beharrak identifikatzea
- Bi garraio-modu hauen arteko aliantza sortzea
- Oinezkoen desplazamenduen segurtasuna eta kalitatea hobetzea
- Bizikletentzako kostu urriko bide-sare seguru, eraginkor eta erakargarria bermatzea.
- Bizikleta bidezko bidaien %5 lortzea, oinezko edo garraio publiko bidezko erabilera maila mantenduz.
- Espazio publikoa, ingurumena eta bizi kalitatea hobetu.
- Sentsibilizazioa eta parte hartzea lortzea mugikortasunaren kudeaketaren inguruan

### **Planaren iraunaldia**

Planak 10 urteko iraunaldia eduki beharko luke printzipioz eta 2025 urtean berrikusia izan. Urte horretan Errenteriako Estrategia Planaren iraunaldia ere amaitzen da. Aipatutako bi Plan hauek filosofia eta irizpide bateratuak dituzte mugikortasun arloan. Horrek ez du esan nahi ordurarte ez dela Plan honen ebaluaziorik egin behar. Bi urtetan behin Planaren ebaluazioa egitea gomendatzen da.

### **Honako Plana HMJP batean egituratua egotearen garrantzia (Hiriko Mugikortasun Jasangarriko Plana)**

Honako OBMP eta mugikortasun orokorraren inguruko Hiriko Mugikortasun Jasangarriko Plan baten arteko bereizketa egitea garrantzitsua da. (Errenterian oraindik egiteke). HMJP batek garraio eta mugikortasun sistema bere osotasunean aztertzen du, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna barne. garraio publikoa, autoz edo ibilgailu pribatuan egindako joan-etorriak, aparkatzea, bide-araudia, etab. Honela, estrategia orokor hau garatzea funtsezkoa da, modu guztien arteko garraio politikak besteezko koherenteak izan daitezen.